



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

IN-1. ALDEZ AURRETIK JAKINARAZTEKO JARDUERA SAILKATUAK

Zer da / Zertarako da

Aurretiazko komunikazio hau aurkezteak ahalduz zaitu ezarri beharreko jardueran hasteko, erantzule bakarrak direla jardueraren titularrak eta egiaztagiria eman duten teknikariak. Dena dela, horrek ez du salbuesten, jardueretan hasi ahal izateko, gaitzuntza ematen duten administrazio tituluak eduki beharretik edo sektorean aplikatzekoak diren araudiek xedatzen dituzten aurretiko kontroletatik.

Ahalmena ematen du eragozpenak sorrarazi ahal dituen edo pertsoneri edota haien ondasunei arriskuak eragin ahal dizkien, eta, era berean, ingurumenari kalte egin ahal dion 7/2012 Legearen II. Eranskineko B idatz-zatiko jarduera bat ezartzeko, zabaltzeko edo eraberritzeko, apirilaren 23ko Legeak aldatutako Euskal Herriko Ingurumenari buruzko 3/1998 Lege Orokorra 55. artikuluan jasotako zerrendari jarraiki:

- a) Argindarra ekoizteko instalazioak edo energia berriztagarriak argindar bihurtzeko hartze-eta eraldatze-instalazioak, potentzia instalatua 50 kW-etik gorakoa eta 100 kW-ekoa edo baxuagoa baldin badute.
- b) Hainbat tailer eta lantegi (aroztegiak, galdaragintza-tailerrak, muntaketa-tailerrak, mekanizaziokoak, okindegiak, gozotegiak, katerinak...), baldin eta instalatutako potentzia totala (mekanikoa edota elektrikoa, argiarena kenduta) 25 kW baino txikiagoa bada eta ekoizpenerako azalera ez bada 300 m²-tik gorakoa; hortik kanpo geratzen dira gainazalaren tratamendua, bernizatze-lana, pistola bidezko pintatze-lana edo halakoak egiten dituzten tailerrak, jarduera sailkatuen lizentzien zerrendan baitaude sartuta.
- c) Jarduera sailkatuen lizentzien zerrendako 7. puntuan sartzen ez diren biltegitratze-, salerosketa- eta erakusketa-jarduerak eta instalazioak.
- d) Erregai likidoak edo gaseosoak biltzeko instalazioak, 50.000 litrotik beherako edukia dutenak; sailkapen honetatik kanpo utzita zerbitzugune batean, hornitegi-parke batean, banatze-instalazio batean edo horren pareko instalazio batean daudenak.
- e) Ibilgailuak zaintzeko lekuak.
- f) Zenbait zerbitzu-jarduera: haurtzaindegiak, ikastetxeak, osasun-zentroak eta botikak, albaitaritza-klinikak, polizia-etxeak eta segurtasun-zentroak, bulegoak, ile-apaindegiak, masaje-etxeak eta hiltegi-zerbitzuak.
- g) Hotelak eta erresidentzia komunitarioak, edadetuen egoitzak, ostatuak eta halako etxeak.
- h) Jarduera sailkatuetarako aurretiazko lizentziaren menpe ez dauden ostalaritza- eta jatetxe-establezimenduak eta jendaurreko ikuskizunak edo jolas-jarduerak ematen dituztenak.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

i) Eranskin honetako A) atalean sartu gabe dauden abeltzaintza-ustiategi txikiak eta etxeko eskortak.

j) Eraldaketa-zentroak.

k) Informazioa tratatu eta komunikatzeko zentroak (kalkulu-zentroak, datu-bankuak, irradi-errepikagailuak eta telebista-errepikagailuak, satelite bidezko errepikagailuak, telefonia mugikorreko antenak eta oinarri-estazioak, irradi-telefonoko estazioak eta estazio irradi-telegrafokoak, irradi-igorgailuak, telebista-igorgailuak eta alarmak kontrolatzeko zentralak) eta antzekoak.

l) Instalazio osagarriak:

l.1) Galdara-gelak.

l.2) Airea girotzeko instalazioak.

l.3) Kamera hozkailuen instalazioak.

l.4) Erradio-diagnosi medikoa egiteko instalazioak; alegia, aplikatzekoa den erregelamenduaren arabera, diagnosi medikoak egiteko helburua daukaten X izpien ekipoa eta instalazioak.

m) Errauste-laberik gabeko hilerri eta tanatorioak.

n) Otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 55. artikuluari jarraiki eta 7/2012 Legearekin bat etorritik, osasunean eta ingurumenean antzeko eragina daukaten beste jarduerak.

Lokalean obrak egin behar izanez gero, obrak egiteko lizentzia eskatu beharko da jardueralizentzia eskatu aurretik.

Udalaren ikuskaritza eta kontrol araudiaz gain, udal zerbitzu teknikoek dokumentu teknikoak aztertu ondoren, Udalak jardueran behar bezala jarduteko bestelako neurri osagarriak ere betearaz ditzake.

Udalak egiaztatuz gero datu, adierazpen edo dokumentu garrantzizkoren bat zehaztugabea edo faltsua dela, edo indarreko legeek eskatzen dituzten baldintzak ez direla betetzen, arauak xedaturiko espedientea izapidetu ondoren, eskubidea erabiltzeko edo jardueran aritzeko debekua ezar lezake, gertaeren berri duen unetik beretik, izan litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboez gain.

Nork eska dezake

Jardueraren titularrak edo haren legezko ordezkariak.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Aurkeztu beharreko agiriak

A. Jarduera sailkatuaren aurretiazko komunikazioa eta sustatzailearen ardurapeko aitopena jasotzen dituen inprimakia [Ikus AK inprimakia](#)

B. Teknikari gaitu batek egindako ziurtagiria, egiaztatzen duena jarduera eta/edo instalazioak bat datozela aurkeztutako eraikitze-proiektuarekin eta dokumentazio teknikoarekin eta betetzen dituztela ingurumen-arloko betekizun guztiak (ingurumenaren gaineko eraginari buruzko adierazpenean jasotakoak barne). [Ikus ZT inprimakia](#)

C. Proiektuaren idazlearen prestakuntza teknikoa edo gaikuntza profesionala egiaztatzea, baldin eta proiektua dagokion Elkargo Profesionalak bisatua ez badago.

D.- Teknikari gaitu batek idatzi eta sinaturiko proiektu teknikoa. Gutxienez honako hauek jaso beharko ditu proiektuak:

D1. Memoria: Jarduera eta berori garatzeko ezarritako neurriak azaltzen dituen memoria eta ingurumen memoria, honako hauek barne direla:

1.1. Lokalaren deskribapena, erabileren araberako azalera osoak eta partzialak (erabilgarriak eta eraikiak), eta, horrez gain, lokalak zer kokapen duen eraikinaren barruan, zer sarbide dituen eta nola komunikatuta dagoen.

1.2. Fatxad(ar)en koloretako argazkia(k).

1.3. Jardueraren deskribapena (helburua eta jardueraren garapenak edo ekoizpen prozesuak berezko dituen ezaugarri teknikoak, makineria, erregaiak, instalazio higienikoak...) eta jarduerak ingurumenean, pertsonengan edo haien ondasunetan izan dezakeen eragina gutxitzeko ezarritako neurrien deskribapena.

1.4. Jardueraren funtzionamendurako beharrezkoa den makineriaren deskribapena eta ezaugarri teknikoak, eta, hala badagokio, lokala aireztatzeko eta/edo girotzeko aurreikusitako instalazioena.

1.5. Lokalaren edo jardueraren aurrekariak, BERRIA den edo lehendik dagoena BERRITU EDO LEGEZTATU egin den zehaztuz eta azalduz.

1.6. Aplikatu beharreko araudia betetzearen justifikazioa (Arau Subsidiarioak, ordenantzak, zaratari buruzko ordenantza, irisgarritasuna, Eraikuntzako Kode Teknikoa, suteen aurkako babes neurriak, osasun arauak eta abar).

1.7. Araudi zehatzen pean dauden instalazioetan (instalazio elektrikoa, instalazio termikoa, gas instalazioa, igogailua eta abar), segurtasun industrialari buruzko araudietan ezarritako baimenak eta zerbitzuan jarri izanaren agiriak aurkeztu beharko dira.

D2. Planoak

2.1. Jardueraren kokapena (gutxieneko eskala: 1:5000).



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2.2. Lokala edo eraikina zehazki non dagoen eta gainerako finkarekin erlazionatzen duen kokapen-planoa (gutxieneko eskala: 1:500).

2.3. Oinplano kotatuak: lokala osatzen duten maila guztien gaur egungo egoeraren plano kotatuak, honako hauek zehaztuz:

- Lokala osatzen duten bulego guztien banaketa eta erabilera, kotak eta azalera zehaztuta (gutxieneko eskala: 1:50), bai eta irisgarritasunari buruzko arauak betetzen direla egiaztatzen duen agiria ere.

- Instalazioak: aireztapena, girotzea, makineria, suteetatik babesteko neurriak, saneamendua, iturgintza, elektrizitatea (gutxieneko eskala: 1:50).

2.4. Sekzio kotatuak, espazioen garaierak eta erabilerak, hodiak, instalazioak, makineriak adieraziz (luzetara eta zeharka) (gutxieneko eskala: 1:50).

- Sarbidearen eta sestra koten bidez trazaturiko sekzioa.

- Fatxada, gaur egungo eta etorkizuneko egoeretan (gutxieneko eskala: 1:50).

- Jarduerarako behar diren beste xehetasun-plano batzuk.

Ziurtagiria ez badu dagokion elkargo profesionalak ikus-onetsi, aurkeztu duten teknikariaren prestakuntza teknikoa edo gaikuntza profesionala egiaztatu behar da.

Ale bat aurkeztuko da paperean, eta beste kopia bat erantsi ahalko da CDan, izapideak arintzeko.

E. Instalakuntza elektrikoaren boletina, Industri Lurralde Ordezkaritzan inskribatutako eta baimendutako instalatzaileak izenpetuta.

F. Barruko ur instalakuntzen proba ziurtagiria, Industri Lurralde Ordezkaritzan inskribatutako eta baimendutako instalatzaileak izenpetua.

G. Berokuntza, klimatizazio, aireztapen eta estrakzio instalakuntzen proba ziurtagiria, Industri Lurralde Ordezkaritzaren inskribatutako eta baimendutako instalatzaileak izenpetua.

H. IAE n alta.

I. Suteen aurkako babes sistemak mantentzeko kontratuaren kopia.

J. Instalatzeko eta funtzionatzeko osasun baimena, hala badagokio.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Non aurkeztu behar da

Udaletxeko sarrera erregistro orokorrean (San Bartolome 2, 20400 Ibarra), astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 14:00etara.

OHARRA: Aurrez aurre teknikariarekin bildu nahi izanez gero, ordutegia: astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara. Hitz ordua ordutegi zabalagoan emateko aukera ematen da. Hitz ordua duen herritarrari emango zaio lehentasuna.

Hitz ordua eskatzeko: 943671138 edo ingurugiroa@ibarra.eus

Zenbat kostatzen da

Ikus ordenantza fiskalak, 59. orrialdea

Prozeduraren epea

Aurretzeko komunikazioa eta bestelako agiri guztiak aurkeztuta daudenean: Berehalakoa